

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 40.000 euroko diru-laguntza eman dio Ipes Elkarte fundazioari

"Emakumeen Liburutegia" dokumentazio-zentroa mantentzeko eta garatzeko erabiliko da

Astelehena, 2016.eko abuztuak 8

Nafarroako Gobernuak 40.000 euroko diru-laguntza eman dio [Ipes Elkarte Fundazioari](#) "Emakumeen Liburutegia" dokumentazio-zentroa mantentzeko eta garatzeko aurtengo urtean zehar. Era horretan, Herritarren eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko kontseilaria den Ana Ollok lankidetzeta-hitzarmena sinatu du gaur goizean IPES Elkarteko lehendakaria den Julia Munarrizekin.

Ollok sinadura-ekitaldian adierazitakoaren arabera, hitzarmen honen bidez "fundazioaren jardura espezializatua eta bakarra bultzatuko da; hau da, teoria feministak eta generokoak, emakumeen historiak hedatzea eta emakumeek zientziaren, arteen eta kulturaren mundura egindako ekarpenak ezagutzera ematea eta zabaltzea".

Emakumeen Liburutegia emakumeei, generoari eta feminismoari buruzko dokumentazioan espezializaturiko zerbitzua da. Herritarrei doan eskainiko die sakabanatuta aurkitzen den informazioa, eta, batzuetan, sartzea zaila den zentroetan dagoena. Estatuko emakumeen dokumentazio-zentroen eta liburutegien Sarean (41 zentro espezifiko osatzen dute) nahiz emakumeen dokumentazio-zentroen eta liburutegien María Moliner Elkartean sartuta aurkitzen da (Elkarte-mugimendukoa).

Hitzarmenaren helburuak

Diru-laguntzaren helburuak hauek dira: Emakumeen Liburutegia mantentzea eta herritar guztiei Liburutegira jotzeko bidea erraztea; dagoen dokumentazioaren bidez, emakumeen egoeraren, pentsamendu feministaren, genero-azterketen eta emakumeek sortutako kulturaren (literatura, artea, zinema, komikia, e.a.) inguruko informazioa ematea, emakumeek bizitza sozialean, politikoan, kulturean eta ekonomikoan parte-hartzea sustatuaz, eta emakumeen eskubideak lortzen aurreratzea; eta Ipes Elkartearen web orriaren eta sare sozialen bitartez kultur eta dokumentu ondare horren inguruan sentsibilizatzea, feminismoaren barnean joera ezberdinak erakutsiaz.

Horrez gain, emakumeek idatzitako literatura eta emakumeek kulturara egindako ekarpena hedatuko dira; zentroa bera, funtsak eta jarduerak hedatuko dira, egoitzan bertan nahiz modu birtualean; azkenik, gaikako bibliografiak egingo dira honako hauen inguruan: genero-berdintasuna, emakumeen egoera eta eskubideak, generoaren teoriak eta feminismoak, emakume sortzaileak, artistak, zientifikoak eta abar ezagutzera ematea eta horien jabeakuntza.

Hitzarmenean, Nafarroako Berdintasunerako Institutuari (NBI) emandako eskumen batzuk osatzen dira; zehazki, Foru Komunitatean emakumeen egoeraren bilakaerari buruzko azterketak eta ikerketak egitearen ingurukoak nahiz emakumeen desberdintasun-egoeraren eta berdintasuna sustatzeko neurrien gainean sentsibilizatzeko jarduerak.

Ipes duela hainbat hamarkada hasi zen genero-ikuspegiko lehen ikerketa-lerroak lantzen. Nafarroan emakumeen inguruan espezializatuta dagoen liburutegi bakarra du. Nazioarteko mugimenduaren testuinguruan mugitzen da, eta, genero-azterketatik abiatuta, emakumeak jakintzaren diziplina guztietan kontuan hartzea proposatzen du, sormen kulturalean, zientifikoan eta artistikoan ekintza positiboak bultzatuaz eta emakume produktoreen, sortzaileen eta zientifikoek lana zabalduaz. Modu horretan, NBIrekin bat datorren informazioa, ezagutza eta helburuak partekatzen eta hedatzen ditu.